


www.noaua.com

Noaua !!



Ongi etorri beroa egin zaie
haur sahararrei



Kezka Atxegalden, kea eta usain txarra dela

erredakzioa@noaua.com
www.noaua.com

Laster oportetara goaz

Uztailaren 20an kaleratuko dugu ikasturte honetako azken NOAUA! astekaria Irailaren 7an argitaratuko dugu hurrena. Uda honi begira ohar, albiste, zorion agur... edo iragarkiren bat ipini nahi baduzu, gogoan izan uztailaren 16a baino lehen ekarri edo bidali beharko duzula.

Hamaika
ikusteko, bizitzeko



LTD/Euskaltel



Ordenagailuan



Ipad/Tablet



Mugikorrean

Nazioa eskura

www.hamaika.tv

Albistea iruditan!

Urteroko hitzordura, hutsik egin gabe

Santixabelei hasiera ofiziala pozarren eman ostean, uztailearen 6an hitzordu berri baten bueltan bildu ziren berriz, ondoko argazkiko lagunak. Duela ia hamarkada batetik Olarrondo jatetxeak prestatzen dien egun pasa politaz gozatze-ko aukera izan zuen herritar talde honek. Eguraldia lagun, jatetxe atarian bildu ziren NOAUA!-rako argazki hau ateratzeko. Eurek eta senideek esker ona helarazi nahi diote jatetxeari. Olarrondokoek antolatzen dieten hitzordura, hutsik egin gabe bertaritzen dira urtero. Eguna nola igarotzen duten asmatzeko, euren aurpegiei begiratu besterik ez dago.



OLARRONDOK URTERO BAZKALTZERA GONBIDATZEN DITU.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	943 369 113	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KzGunea	943 023 684	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregerai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



JOXE PIÑAS

Eskutitzak, postalak, e-mailak eta bestelako idazkiak

Mexikotik etorri da idazki honen sorrera, beste behin. Arrazoi eta forma ezberdinetan: postalez, internetez, korreo elektronikoz, gutun anonimoz, ... Gaur egun, albiste baten berri izateko era desberdinak baitaude.

POSTALA: usurbildar bat baino gehiago Mexikon oporrak igarotzeko maletak edo motxilak prestatzen ari dela seguru nago. Joateko aukera desberdinak badira: batzuk ibilbidea bidaiaria-agentzia baten bidez adostuta joango dira, beste batzuk gero eta zabalduago dagoen etxeak trukatzeko aukeraren bidez, norbait akaso bertako errealitate soziala zein politikoa ezagutzeko brigadista moduan joango da, ... Era batean edo bestean, gozatu eta postala bidaltzeaz ez zaitezte ahaztu!

INTERNET. Mexikon, presidentziarako hauteskundeak pasa berriak dira eta interneten bitartez berriro PRIk irabazi duela jakin dut. Salaketak ez dira falta izan: boto salerosketak, hauteskontzien lapurrekak, boto-zerrenden desagertpenak, herritarren kontrako mehatxuak, ...

SARE SOZIALAK: Baina hauteskunde prozesu honek gauza positiboak ere utzi ditu, horien artean "YoSoy132" gazte eta ikasle mugimenduaren sorrera bultzatu du. "YoSoy132" mugimenduak politikagintzan etika berreskuratzea asmoa dauka. Horretarako, Mexikon politika eta komunikabideen arteko botere bateratua apurtzea eta komunikabideen demokratizazioa beharrezkoa direla diote. Mugimendua biltzarretan antolatzen da eta interneteko sare sozialen bidez hedatzen ari da. Mugimendu honekin, nazioarte mailan sortu den bezala, era-berriko mugimendu alternatibo eta kritikoa Mexikon forma hartzen ari da ere bai.

KORREO ELEKTRONIKOA: Internetek, bidaiaria horietan sortzen diren lagunekin harremanetan jarrai gaitetzen laguntzen du. Eta horrela etorri da Mexikotik iritsi den idazki honen beste esanahia. Korreo elektronikoaren bitartez jaso dugu gure lagunnen berria.

ESKUTITZA: lagun mexikarra etxean sartu da, eta eskutitza ikusi duenean berriro samindura... eskutitz anonimoa da. Berriro herio-mehatxuak...

Eskutitz batek, postal batek, idazki batek, ... zenbat esanahia ezberdin eman diezaiekegun? Paisaia miresgarri baten lekukoa izan daitezke, egoera politiko-sozialaren berriemaileak, ikaraz bizitzeko abiapuntua, ...

Baina IDAZKI batek elkartasuna, irmotasuna, eta gertutasuna islatzeko balio du ere bai. Eutsi, ez etsi!

Baina IDAZKI batek elkartasuna, irmotasuna, eta gertutasuna islatzeko balio du ere bai. Eutsi, ez etsi!

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: uztaileak 20. Idatzia ekartzeko azken eguna: uztaileak 16.

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
 **teillatuak eta fatxadak**
943 37 38 79 - 620 80 01 86
Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

HOLWELL HELUMEN

OSTEOPATIA ZERBITZUA
 NATIA ALZUQUAGA
 OSTEOPATA D.O. FISIOTERAPEUTA
 CAL 284 778
HITZORDUA: 607 95 82 08
 Zubiaurrena 4, 943 361 951

TAXI
607 92 87 70
943 00 44 83
Angel (24h) USURBIL

SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Festarik festa



Izenburua irakurrita asmatuko duzue zertaz ariko naizen ezta? Esan beharrik ez dago, urte sasoi honetan, hainbat eta hainbat herritan festak direla, eta gure herriko festak pasa berrian direnez orain da hitz egiteko momentua. Azkar pasa dira aurten ere, eta guraso garenontzat hori ez da albiste txarra, a ze gastual! Gure seme-alabek ba al dakite krisiak jota gaudela? Edo itxurak egiten dituzte? Ze gastatu behintzat erraz egiten dute, beren "barrakak"... Baina pertsonalki, Santixabelak entrenamendu modukoak izan dira niretzat. Iruñeko lagunak txupinazioan zain neuzkan eta indarrak gorde behar nituen uztailearen 6rako, neure adinarekin horrela ibili behar naiz. San Ferminak oso bereziak dira niretzako, txiki txikitatik ezagutu ditut eta ahal dudanean bertara joaten naiz. Azpimarratu behar da euskaraz geroz eta gehiago hitz egiten dela, bertakok ari dira oztipoen gainetik aurrera egiten, eta poza ematen du. Santixabelak izan, ala San Ferminak izan, ongi pasatzea da gakoa, eta urteko tentsioak eta buruhaustek ahaztu behar dira. Hori bai, dosifikatuz, eta pasa gabe. Eta Iruñeko lagunak esaten didaten bezala, atek irekita daukazue ze zuek ere nafarrak zarete! Beraz, animatu, eta kontuz zezenekin! Gora Santixabel! Gora San Fermin!

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Finala



Uztaila, uzta jasotzeko hila. Uztaila, aurrez goldatu, jorratu eta ereindakoen saria jasotzeko hila. Uztailearen 12a, goizeko 10:30, Donapaleu, Euskal Herriko Errebotte Ligako 2. mailako finala, Angeluko Hardoytarrak eta zubietarrak aurrez aurre. Finala galdu edo irabazi, emaitza gozo edo gazi, zubietarrentzako sari. Izan ere, badira 20 urte pilotari zubietarrek final hori jokatu ez dutela eta ondo egindako lanaren ordaintzat hartu beharko da finalera iritsi izana. Zugastiko Josu, Joseba eta Imanol Aizpuruak, Jon Argotek eta Ugaitz Rezolak bide luze eta zaila gainditu dute finalera iristeko. Baiona, Senpere II, Ustaritze II, Donapaleu II eta Baigorri II izan dituzte ligaxkan aurkari eta ligaxkan 5 partidatik 2 galduta juxtu antzean iritsi dira finalerdira. Baina, hara, final erdietan erortzeko tradizioa atzean utzi eta Sarako errebotte plazan Senpere I gainditu zuten zubietarrek 13 eta 7ko emaitzarekin. Bejondeiela! Finaleko aurkaria Hardoytarrak II taldea da, talde beteranoa, eskarmentu handikoa eta gogorra. Mikel Bengoetxearen iritziz, finaleko gakoa partida ondo hastean egongo da, aurretik jartzeak izugarritzko garrantzia izango du, buruak lan handia egiten baitu horrelako egun berezietan. Zoriak ere bere aletoxa jarri nahiko du eta, horrenbestez, zorte on zubietarrok!

AGINAGA

M^A ANGELES ARRUTI

Txokoaldeko lagun berriak



Txokoaldetik Santueneara doan erriberako bide horri "Santio bidea" deitzen diot nik, eta esango duzue zer esan nahi duen horrek. Asko erromesak bezala ibiltzen garelako hainbat eta hainbat lagun egunero, batzuk oso goiz ere bai. Sekula ez zait gertatu inor gabe ibilaldia egitea, eta horrelako egun batean hor ikusten ditut lursail batean 12 biztanle berri eta oso dotoreak gainera. Denetik dute soinean; gona, soineko, mantal, txapela, pamelak, alkandorak, blusa, pañueloak, galtzak... Hor duzue atera nuen argazkia ikusteko eta lerro hauetatik zorionak horrelako originaltasunagatik. Irribarre gozoa ateratzen dutelako, eta gaur egun gauza asko ez dauzkagu horretarako. Oporrak ondo igaro denok eta irailera arte, ondo izan!



ATXEGALDE

UNAI AIZPURUA

Udako Ironman-a



Urtero legez jarri da martxan da 2012ko udako Ironman txapelketa. Erropa erosoak prest. Gogo faltarik ez du. Urte osoa proba luze hau preparamen. Urte osoa helburu batekin. Helmugara heldu. Ez du markarik bilatzen, bide luzea egin eta amaierara heltzea, bukatzea da nahia.

Abian da dagoeneko, 3,86 kilometro igeri, 180 kilometro bizikletan eta 42,2 kilometro korrika, 180 kilometro bizikleta gainean eta 25 kilometro igeri. Hasi da bere "triatloi" pertsonalarekin. Itsaso zakar, portu gogor eta kilometro luze eta bukaezinak.

Sanjuanak, San Pedroak, Santa Ixabelak, San Ferminak, Madalenak, 3 haundiak (Gasteiz, Donostia, Bilbo), 3 Txikiak (Zubieta, Sanesteban eta Atxegalde), Euskal jaiak, Kontxako bandera, Porrontxoak, eta helmuga urria hasieran ospatuko diren Agiñako San Praixku festetan.

Entrenamendu saio gogorren ostean, domina lepotik barrera jazteko itxaropena ez du galtzen. Ez litzaioke gaizki etorriko ADO-ren diru-laguntzatxoa ezta? Ondo pasa bizi dugun udara eta ez pasa "kirolarekin"!

PSE-EE alderdiaren balorazioa: “Eskola publikoaren alde egotea ez da ikastolaren aurka egotea”

Legintzaldiaren lehen urtea bete da eta udalbatzan lordezkatuta dauden alderdien balorazioak jasotzen ari gara asteotan. Aralar, Hamaikabat eta EAJ-PNVkoen hitzak jaso ditugu aurreko zenbakietan. Honakoan, Usurbilgo PSE-EEren txanda da.

NOAUA! Legealdi berria abiatu zenetik urtebete igaro da. Nola joan da lehen urte hau?

Ricardo Crespo. Gutxinaka, udal gobernu taldea martxa hartzen ari zaio udaletxeari. Baina maila orokorrean, ondo. Logikoa den bezala, hartu diren erabaki askorekin ezin dut ados egon baina giroa ez da txarra.



RICARDO CRESPO ETA RAFAELA ROMERO, DUELA URTEBETE USURBILGO HAUTAGAITZA SOZIALISTA AURKEZTU ZENEAN.

RICARDO CRESPO

“Nire alderdiaren ikuspegitik, Bildurekin harremana ona da, Usurbilen behintzat bai”

N. Bilduk gehiengo osoa lortu zuen aldetik, zer nolakoa da oposizio alderdien lana?

R. C. Nire alderdiaren ikuspegitik, Bildurekin harremana ona da, Usurbilen behintzat bai. Hasieran ez zen kolaboraziorako asmo handirik ikusi udal gobernuaren aldetik, baina badirudi gauzak aldatzen ari direla.

N. Hezkuntzarena izango da datoen urteetan zeresan gehien emango duen arloa. Zein da PSE-ren planteamendua alor honetan?

R. C. PSE-EE alderdian gure planteamendua beti berbera izan da. Kalitatezko eskola publiko baten alde-

ko apustua. Datozen urteetan, Usurbilek behar du bere heziketa eskaintza zabaltzea eta uste dugu era onena eskola publikoaren bidez dela. Guraso talde batek abiarazi duen bidea oso garrantzitsua da eskola publikoa lortu ahal izateko.

Baina jendeak ulertu behar du eskola publikoaren alde egotea ez dela ikastolaren aurka egotea.

Ikastolak erabaki du eraikina handitzea etorkizunera begira behar batzuk aurreikusi dituelako. Baina eraikin horren obra gauzatzea garestia da. Kasu honetan, hain garestia, obra finantzatu ahal izateko Udalak bere finantziarioaren zati batekin parte hartu behar zuela, ondo gogoan badut 1.200.000 euroekin gutxi asko. Bizi ditugun garai hauetan, herritar askok ez lukete ulertuko elkarte pribatu bat horrela laguntzea, elkarte dena delakoa izanda ere.

PSE-EE alderdian uste dugu konponbide onena izango dela eskola publikoarena. Udalak soilik lur zorua

erreserbatu behar du eta gero Eusko Jaurlaritza izango da eraikiko duena.

N. Etxebizitza arloari dagokionez, Udala egiten ari den kudeaketaz zein balorazio egingo zenuke?

R. C. Udala aurrerapausoak ematen ari da arlo honetan. Etxebizitzak eraikitzeke ez da garairik onena, baina hala ere proiektuak aurrera ateratzen saiatzen da.

N. Krisiaren eragina zer mailatan igartzen da herrian?

R. C. Arlo honetan, udaletxe baten ahalmena nahikoa urria da, baina diozun moduan, bada nondik landu. Formazioari dagokionez, enprekin akordioak, enpleguaren sustapena bultzatzeko hartu-eman beste instituzioekin...

Dena ez da laguntza, herritarrei ere euren kabuz moldatzeko baliabideak eman behar zaizkie. Arlo honetan beti egin daiteke gehiago, inoiz ez zaigu nahikoa irudituko.

“Agerian geratzen ari da, armak uzten badira, politikan planteamendu denak direla baliogarriak”

NOAUA! Usurbilgo Udalak zorpe-tze maila handia duela uste al duzu ala egoera jasagarria al da?

Ricardo Crespo. Udaletxearen egoera ekonomikoa jasagarria da, baina horregatik ezin dugu lo hartu. Kostuak ahalik eta gehien, ahal den toki guztietan, jaitsi behar dira baina eskaintzen ditugun zerbitzuak ez daitezela kaltetuak izan. Bestetik, aurrekontuetako hainbat partida PSE-EEk beste modu batean enfokatu litzuke.

N. ETak jarduera armatua behinbetiko amaitzea erabaki duela jakin

narazi zuen iragan urrian. Geroztik hona, eman dira hainbat pauso. Bakegintza arloan, itxaropentsu izateko garaia dela uste al duzu?

R. C. Hau da garaia. Une hau aprobetxatu edo akabo, honek ez du konponbiderik izango bestela. Bada belaunaldi bat, nirea, ETA arazo gisa baino ez duena ikusten.

Agerian geratzen ari da, armak uzten badira, politikan planteamendu denak direla baliogarriak. ETak eragindako arazoa baino, bitalagoak diren kezka dituzte jendeak. Uste dut herritarrak nahikoa nazkatuta gaudela gai honekin.



KONPONBIDEAN AURRERA EGITEKO, UNE HAU APROBETXATU BEHAR DELA DIO.

“Diputazioak aurkeztu duen plan hau dagoeneko existitzen den planari egindako osoko zuzenketa da”

NOAUA! Hondakinen inguruko plan eguneratuaren berri eman zuen duela aste batzuk Foru Aldundiak. Egin den proposamenaren inguruan zein iritzi duzu?

Ricardo Crespo. Egia da Foru Aldundiak hondakinen inguruko bere plana aurkeztu duela orain egun batzuk. Gauza onak baditu ere plan horrek, kontsumoaren behar kadaren aurreikuspen gaurkotua; hondakinen sortzearen beharpena, alegia. Baina tranpa dezente ditu.

Batetik, Zubietan tratamendu mekaniko-biologikorako planta batez mintzo da plan hori; erreusaren frakzioa balorizatzea lortzen da, likidoa kenduz, bolumena gutxitzea lortzen da eta bere ahalmen kalorifikoa handitu. Ondoren, hori errez, energia sortzea lortzen da. Hau da, erraustez

hitz egiten du, erraustea hitza aipatu gabe. Baina gainera, ez du argi eta garbi hitz egiten ondoren ireki beharko liratekeen zaborte-giez. Hondakin balaz eta erreusa diren hondakinen espazioetaz mintzo da Bilduren plana. Eta zaborte-gien europar arautegira moldatu beharko direla aipatzen da.

Beraz, espazio horiek zaborte-gisa ari dira planteatzen baina horrela izendatu gabe. Gainera, denok dakigu Zubietan kokatu beharreko plantaren inguruan, PIGRUP delakoan aurreikusia zegoena, zer nolako polemika piztu zen. Plan hark ez zuen erraustea-planta bat bakarrik aurreikusten.

Plan honetan, Bilduk ez du zehazten non ezarriko diren erreusa diren hondakin horientzako espazio edo zaborte-gi berri horiek.

Bestetik, ezin daiteke esan plan integrala denik, zeren bada ahazten duten zatirik. Soilik hiri hondakinez mintzo dira baina badira urak garbitzeak dakartzan lohiak, edota industria arloko hondakinak. Diputazioaren plana ez da hondakin horietaz mintzo.

Beraz, Diputazioak aurkeztu duen plan hau dagoeneko existitzen den planari egindako osoko zuzenketa dela esan daiteke. PIGRUP delakoa.

Eta hau dena, PNVri esker, Diputazioak aurrekontuei eman zien babesarekin atzerapen bat onartu zuelako, era horretan PIGRUP delakoa salbatuko zuelakoan edo. Egitarren PNVk hausnarketa egitea espero dut, aurreko gobernu foralaren plana berreskuratu dezala, PNVk berak zuzentzen zuen gobernuaren garaiako plana.

Beste behin, murrizketak euskal hedabideentzat

Herri ekimeneko euskal hedabideen sektorean, aspaldiko garai txarrenak bizi ditugu. Eusko Jaurlaritzaren eskutik iritsi da azken berri txarra. Euskal hedabideentzako diru laguntzak murriztu egin dira eta NOAUA!ren moduko tokiko hedabideen kasuan, murrizketak %40tik gorakoak izatera iritsi dira. Honen aurrean, euskal hedabideok agiri hau batera argitaratzea erabaki dugu.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak %11 murriztu du herri ekimeneko euskal hedabideentzako diru-laguntzen partida. Batean Jaurlaritza, bestetan Aldundiak, bestetan udalek, apurka-apurka baina etengabe ari zaizkigu iristen murrizketak, diskurtso publikoan izaera estrategikoa aitortzen bazaigu ere.

DATU KEZKAGARRIA

“Iazko laguntzarekin alderatuz, Eusko Jaurlaritzak %40 jaitsi dio dirulaguntza NOAUA!ri”

Estrategikoa, bai, oinarritzko funtzioa betetzen dugulako euskararen normalizazio eta garapenean. 450.000 lagunengana iristen garela. 600 lanpostu baino gehiagoren ardura dugulako. 27 milioi euro inguruko jardue- ra ekonomikoa eragiten dugulako.

Garai latzak dira guztiontzat, ondortxo dakigu hori. Inoiz baino ahalegin handiagoak egiten ari gara euskal hedabideok garai berri horietara egokitzeko: diru iturri berriak bilatzeko, gure enpresa egiturak sendotuz, eta ditugun baliabideak optimizatzeko, elkarlanerako formula berriak garatuz. Ez gara kikildu krisiaren aurrean, eta soberan ez ditugun indarrak inbertitzen ari gara gauzak hobeto egiteko. Lan horren ondorioz, herri ekimeneko euskal hedabideek martxoan aurkeztu



EUSKARAZKO HEDABIDEEN SEKTOREA EZ DAGO EGOERA ONEAN.

genuen sektorearen diagnostikoa eta erronka komunak biltzen dituen dokumentua.

Inbertitzeko garaia

Herri ekimeneko euskarazko hedabideok hausnarketa mahai bateratua sortzeko eskaera egiteaz gain, eskaera zehatzak ere jarri ditugu erakundeen mahai gainean: diru laguntza politika aldatu eta hitzarmen ereduak ezar dezatela, sektorean inbertsioak eta garapena susta ditzatela eta publikitate instituzionalaren banaketan hizkuntz irizpideak pisu handiagoa izan dezatela.

Horren berri eman diegu erakunde- ei (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia, besteak beste), eta kasu guztietan sektoreak egindako bidea txalotu eta elkarlanerako prest agertu dira.

Baina praktika bestelakoa da: orain ezagutu dugun murrizketak ez digu garapen bide horietan sakontzen laguntzen eta, are txarrago, gutako batzuen biziraupena bera kolokan jartzen du. Tokiko hedabideen kasuan, murrizketak %40tik gorakoak ere izatera iritsi dira.

Esan bezala, badakigu garai zailak direla guztiontzat. Baina benetan estrategikotzat jotzen diren beste sektoreetan bezalaxe, honetan ere erakundeek dirua inbertitu behar dute. Euskal hedabideok garai berrietara egokitu eta sektorea berregituratzeko

egin beharreko inbertsio handiak ezin dira urtez urteko diru-laguntzen menpe egon (ez dugu jakiten zenbat eta noiz jasoko dugun). Etorkizuna bermatuko duten inbertsioak egin ahal izateko, laguntzak hitzarmen bidez jasotzea ezinbestekoa da.

Elkarlanerako deia

Horregatik, elkarlanerako deia luzatu nahi diegu berriz ere Eusko Jaurlaritzari, eta gainontzeko erakunde- ei. Denon ahotan dabilen krisi ekonomikoa ezin da aitzakia izan ezinean dabilen herri ekimeneko euskal hedabideen sektorea hiltzen uzteko.

Herri ekimeneko euskal hedabideok beharrezko jarraituko dugu, egoera berrietara egokitu eta kalitatezko euskarazko informazioa eskaintzeko. Erakunde- ei deia egin nahi diegu gure sektorearen aldeko apustu sendoa egin dezaten behingoz. Badakigu denbora latzak datozkigula, baina horregatik, uste dugu inoiz baino beharrezkoa dela orain arte egin eta konpartitu ez dugun gogoeta estrategikoa egitea, guztion artean erabaki dezagun nolako sektorea behar dugun, behin hau eginda beharrezko baliabideekin horni dezagun.

Eider Carton (Elhuyar), Mikel Irizar (Tokikom), Joanmari Larrarte (Berria Taldea) eta Xabier Letona (Argia), Herri Ekimeneko Euskal Hedabideen izenean (Tokikom elkartean dago ordezkatua NOAUA! aldizkaria).

Orain Olarrondon Menu Berezi goxoen...

28€
Bez-a barne

UDAKO MENU BEREZIA

ASTEARTETIK IGANDERA EGUERDITAN ETA
OSTIRAL ETA LARUNBAT GAUA BARNE!!

28€
Bez-a barne

Cavazko Koktaila otarrainxka piruletarekin
Misera entsalada, cherry tomatezko ozpin-olioa
(MISERA ERDIAREKIN!!)

Bieira labean erreta

Ganbak plantxan

Txuleta pikilozko piperrekin

Txokolatezko Krepak

Cava, Rioja Crianza, Lambrusco, Txuria

Kafea

ASTEARTETIK-OSTIRALERA ERE
EGUNEKO MENUA 11ETAN
(EGUERDITAN)

ERRESERBA BEHARREZKOA (GUTXIENEZ 24H)

OLARRONDO
JATETXEA

28€
Bez-a barne

Olarrondo Jatetxea

5 zenbakia. USURBIL

erreserbak: ☎ 943 360 376

www.olarrondojatetxea.com

SANTIXABEL JAIK 2012

WWW.NOUA.COM WEB ORRIALDEKO ARGAZKITEGIAN IKUSGAI.
ESKUKO TELEFONOAREN BITARTEZ ERE IKUS DEZAKEZU,
KODE HAU BALIATUZ.



ZUREAK ERE GURE WEB ORRIAN IKUSI NAHI?

BIDALI SANTIXABEL JAIETAN ATERA DITUZUN ARGAZKIAK
ERREDAKZIOA@NOUA.COM HELBIDERA ETA DAGOENEN SAREAN
DIRENEKIN BATERA IPINIKO DITUGU ZUREAK

Haur sahararrak, uda honetan gure artean

Yassminie Ahmed Baba eta Marian Ahmed Salem, uda hau Usurbilen igaroko duten bi herritar izango dira. Biak 8-9 urteko haur sahararrak, Udalak etxean hartzeko eginiko deialdiari erantzunez, bi sendietan egongo dira sorterrira itzuli arte. Uztailaren 5ean harrera egin zitzaien, Udalak Potxoenean antolatu zuen ekitaldian.

Opari batzuk banatuz eta askari baten bueltan, ongi etorri mezua helarazi nahi izan zieten gobernu taldeko ordezkari Jone Urdanpilletak eta Enara Arbizuk bi haur sahararrei. Elkartasunak duen garrantzia nabarmendu nahi izan zuten udal ordezkariak. Kasu honetan, urtean zehar kanpaleketan bizi diren hurrek oporraldi modukoa izan dezaten, gure artera etorrita.

JON ARROYO

“Udaletxeak asko erraztu du. Gizarte Zerbitzuetara joan ginen, galdetu eta segituan data bat eman ziguten”

Ongi etorria hurrei eta erakutsitako prestutasun eta eskuzabaltasunagatik eskerrak eman zizkieten, etxean haur sahararrak hartzerantz animatu diren bi sendiei. Tartean dira hain zuzen, Lur Etxeberria eta Jon Arroyo herritarrak.



UZTAILAREN 5EAN HARRERA EGIN ZITZAIEN POTXOENEAN BI HAURREI.

Potxoenean burutu zen harrera ekitaldian tarte bat hartu zuten, NOAUA!-ko galderei erantzuteko.

NOAUA! Nolatan animatu zarete haur saharar bat etxean hartzera?

Lur Etxeberria. Lehendik ere burutik pasa izan zaigu. Jonek hurrekin lan egiten du eta aurten lanera joan zaizkie programa hau azaltzera. Gero justu aste berean NOAUA!-n agertu zen deialdia. Uztailean eta abuztuan Jonek libre zuen aurten, eta egia esan, ez genuen bi aldiz pentsatu.

N. Erabakia hartu zenutenetik haurra etxean hartu arte, zer prozesu burutu behar izan duzue?

Jon Arroyo. Egia esan, udaletxeak

asko erraztu du.

Gizarte Zerbitzuetara joan ginen, galdetu eta segituan data bat eman ziguten elkarrizketa moduko bat egiteko. Eta hortik aurrera, datuak utzi genituen. Gu eskaini ginen eta udaletxeak egin du tramitazio guztia.

L. E. Elkarrizketa txiki bat eta kito. Baiezkoa eman genuenetik hilabete edo pasako zen.

N. Haurrak iritsi berriak dira, nola-koa izan da etorrera?

L. E. Ekainaren 26an iritsi ziren. Loiura hegazkinez eta handik autobusez etorri ziren. Gelditzen joan ziren herriz herri, Usurbilen bi. Hasieran hiru zetozen, baina azkenean bi familia animatu gara.

LATAILLADE

ITURGINTZA
 Gas, berogintza, klimatizazioa, instalazioak
 eta mantenimendua
 Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

USURBIL AUTOAK
 ·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SALMENTA

SUSTITUZIO KOTXEA DOANI!!
 zerbitzu ofiziala
 Zumartegi industrialdea 943 36 10 79

“Gogoa eta eurei dedikatzeko denbora pixka bat izatea aski da”

NOAUA! Nola joan dira lehen egun hauek?

Jon Arroyo. Haurrak ez du erdaraz hitz egiten, ezta euskaraz ere. Eta guk ere ezta bere hizkuntzan. Baina segituan ulertzen dute. Astebete pasa eta txantxetan hasia da.

Lur Etxeberria. Segituan harrapatzen dute keinuekin eta nahiko hitz esaten dituzte jada. Irekiak dira gainera.

N. Udajolasen herriko haurrekin dabilta, zer moduz ikusten dituzue?

J. A. Dirudienez oso gustura daude.

L. E. Galdetu eta oso gustura daudela diote. Irekiak dira. Ezagutzen dituenekin kalean topo egin eta segituan kasu egiten hasten da, kontua da ezin duela hitz egin. Baina jolasteko denean segituan gerturaten da.

N. Hona etortzeak ohitura aldaketa bat suposatuko die. Zer da gehien harritzen dituen?

L. E. Materialki ez dute ezer nahi izaten. Bainujantzia eta bigarren oinetako pare erosi eta ezetz. Oso txukunak eta arduratsuak dira. Gosaria jarri, platerak garbitu, ohea egin... dena egiten du.

Han hala daude ohituta. Emozio gehiena frutak egiten dio. Eta ur asko edaten du.

J. A. Lehen egunean Donostian



POTXOENEAN ANTOLATU ZEN MERIENDA BATEKIN EGIN ZITZAIEN ONGI ETORRIA SAHARAR HAURREI.

zubiak pasatzean, izugarria izan zen. Hainbeste ura eta zubi bat gainean, harrituta zegoen.

N. Zer esan, haur sahararrak etxe-

an hartu nahi dituenari?

J. A. Aurrera joateko.

L. E. Ez du ezer suposatzen. Gogoa eta eurei dedikatzeko denbora pixka bat izatea aski da.

Hezkuntza-ereduari buruzko parte hartze prozesua, uda ondoren

Etorkizuneko hezkuntza-eredua adostu asmoz, parte hartze prozesua martxan jartzeko asmoa du Udalak, udazkenetik aurrera: “Udala herriaren parte-hartze prozesu batean ari da lanean. Udaren bueltan, udazkenarekin batera Usurbilgo hezkun-

tza-ereduari helduko zaio. Helburu orokorra, honokoa da: 0-16 hezkuntza proiektua zehazteko usurbildarrok etorkizunerako nahi dugun hezkuntza eredu bateratua adostea; eta hori gauzatzeko bideak jorratzea”, ohar bidez NOAUA!ri jakinarazi zaionez.

Andoni Errazkin

Xukin

igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

663 08 76 71 • 943 24 34 65

LAUKOTE

okindegia
kafeteria

LAUKOTE

Puntapax 16, beheka 943 360 980

JOSETXO IKATZETA

Iturgintza

TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

ANTXETA

taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Kezka Atxegalden, kea eta usain txarra dela eta

Ingurumen gaiak herritarrak kezkatzen dituela argi geratu zen beste behin, ekainaren 28an Usurbilgo Udalak Atxegalden deitu zuen bilkuran. Auzoko aretoa txiki geratu zen. Galderak, kezkak, zalantzak ugariak ziren, azken urteotan Atxegalden sumatu den kea eta usaina direla eta. Gaiak azken urteotan eman duena eta egun zertan den azaltzen aritu zen, ingurumen eta nekazaritza alorreko udal gobernu taldeko kide Jose Maria Rivadeneyra.

Konpondu gabe jarraitzen du, hainbat herritarren, bereziki Atxegalde inguruan bizi direnen artean, azken urteotan kezka eta haserrea eragin duen arazo batek; itxura guztien arabera, Ucin enpresak aieratu eta herritarrek arnastu behar duten ke eta usain txarrak.

Gai honi buruzko azalpenak emateko Udalak bilera antolatu zuen ekainaren 28an, Atxegalden duen egoitzan. Hitzordura auzotar ugari bertaratzeak, agerian utzi zuen gai honek pizten duen kezka eta jakin mina. Ke eta usain txarra jasanezina zela zioten herritarren kexu asko jaso baitu Udalak azken urteotan. Eta horri erantzunez, aipatu erakundetik arazoa konpontzeko egin diren saiakerak azaltzen aritu zen Jose Maria Rivadeneyra ingurumen eta nekazaritza alorreko zinegotzia.

Garai honetan, ezbaierik gabe bileran bertan zalantzan jartzen ez zen jatorria du, atxegaldetarrek urteotan behin baino gehiagotan arnastu duten usainak eta keak; Osinalde industria gunean kokaturiko Ucin enpresa hain zuzen. Arazoaren iturria bertan kokaturik, azken urteotan Usurbilgo Udalak, enpresarekin eta



ARAZOA ASPALDITIK DATOR. ARGAZKI HAU 2007KO DA.

Eusko Jaurlaritzarekin egin dituen saiakeren berri eman zuen Rivadeneyrak.

Urtebete lehenagotik jasotzen hasitako kexei erantzunez, 2005. urteaz geroztik, bilerak ugariak izan dira. Eta azaltzen joan zenez, gai honek ordutik jorratu duen bidea gorabeheratsua. Hasieratik eta kasik gaur arte, enpresak ukatu egin du inongo arazo eragilea denik. Bertatik argia izan da Udalarari helarazi izan dioten mezua, Rivadeneyraren esanetan, "Ucinek ez zuela arazoa sortzen, ur lurruna baino ez zuela botatzen".

Labeko kanpaiarekin arazoak

Arazoa bera guztiz onartu gabe ere, denborarekin, Ucin enpresak berak onartu du arazoak zituztela labeko kanpaiarekin. "Ez zuen xurgatzen kea behar bezala", ingurumen alorreko zinegotziak bileran aipatzen zuenez. Hobekuntza lanak ere egin zituzten 2007an baina handik gutxira sutea izan eta filtroak erre ziren, Rivadeneyraren esanetan. Konponketa lanak egin artean, kea "filtrorik gabe isuri" zen airera garai hartan. Beste hain-

beste gertatu zen iaz ere, 2011n beste sute bat jazo baitzen enpresa berean.

Minbizia kasuen inguruan

Arazoa konpondu gabe egon arren, 2008an Ingurumen Baimen Bateratua eskatzen dio enpresak Eusko Jaurlaritzari. Gasteizetik behin behinekoa jasotzen du, baina behin betikoa lortzeko auditoria bat pasa behar du. 2010. urtera arte ez zioten eman aipatu baimena. Edozein kasutan, tarte horretan herritarren kexuak, eta batez ere gai honekiko kezka ez zen inolaz ere apaldu. Alderantziz, 2008-2009 ikasturtean, Atxegalde ondolan kokatua dagoen Udarregi Ikastolan bost minbizi kasu agertu ziren haurren artean. Une horretatik aurrera, mintzagai dugun enpresarekin hartu emanetan jarraitzearekin batera, orduan Xabier Mikel Errekondo alkatearen gobernu taldeak lanketa bide berri bat ireki zuen; batetik, Usurbilen arnasten den airearen kalitatea neurtzeko azterketak enkargatu zituen, baita minbizi kasuen inguruko behaketa lana ere.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Poxpolin

MERTZERIA

943 36 82 06

Zubiaurrenea 3, baxua

TXAPELDUN

TABERNA

razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...

Muna lurra 2, 943 11 82 53

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Minbizia kasuak ez dituzte kearekin lotzen

Airearen kalitateari loturik eginiko azterketen emaitzak, Udalak 2010. urte amaieran aurkeztu zituen jendaurrean. Eta adierazi zutenez, Bilduko zinegotziak duela bi asteko bileran gogorarazten zuen moduan, ez zen ezohiko emaitzarik jaso. Beti ere, neurketak egin diren uneetan. EHU-ko kimika fakultateko neurgailua ere egon izan da Atxegalden, baina ez du kezkatzeko moduko emaitzarik utzi. Ez behintzat, neurketa lanak egiten aritu diren egunetan.

Minbizi kasuen aurrean ere beste hainbeste diote. Duela hiru ikasturte, goranzko joera bat egon zela, baina kasualitatearen ondorio dela guztia. Batzuetan halakoak gertatzen direla, horixe azterketa egin dutenek diotena. Eta honenbestez, ez dituzte minbizi kasuok konpontzeke dagoen arazoarekin lotzen. Aurten, jarraipen zehatz horri egitea utzi dute.

Panorama honen aurrean, eta iaz abiatutako legegintzaldi honetan, egungo gobernu taldeak arazoak hor jarraitzen duela ikusi eta konpondu asmoz, ekainaren 14an beste behin bildu ziren, Eusko Jaurlaritzak eta Ucin enpresako ordezkariarekin. Rivadeneyraren esanetan, dagoen arazoa onartu besterik ez zitzaion gelditu



ERA HONETAKO INSTALAZIEN KONTROLA EUSKO JAURLARITZARI DAGOKIO.

Jaurlaritzari, gobernu taldeko kideek bideo bat jarri ziotenean. “Jaurlaritzak onartu zuen kea zela, ez ur lurruna”, Ucin enpresatik airera isurtzen ari zirena. Enpresako ordezkariari, “ke horiek ez dute atera behar” planteatu ziela adierazi zuen Rivadeneyrak. Baina begi bistakoa ukatzen du enpresako ordezkariak. “Berak ukatzen du, usaina Ucin-ek eragiten duela”, gaineratu zuen zinegotziak. Industria gunean lantegi gehiago daudela diote eta Udalarik usainaren inguruko azterketa bat egitea eskatzen diote.

Herritarrekin bilera

Ekainaren 28an Atxegalden burutu zen bilera amaieran, gaur egun oraindik arazoa konpondu gabe dagoela jakinik,

aurrera begirako bi lan ildo nagusi planteatu ziren; batetik, aipatu enpresatik ke gehiago ez aireeratzeke saiakeran jarraitzea, jakinik Udalak bere mugak dituela. Ingurumen zinegotziak gogorarazten zuenez, “instalakuntzak legez Eusko Jaurlaritzak kontrolatzen ditu”. Baina Udalak horixe du bere jomuga, lehentasuna. Alde horretatik enpresari ke gehiago ez botatzeko pauso zehatzak ematea eskatzen dio. Horretarako, lege aldetik Jaurlaritzak bezala Udalak ere kontrol lanak egiteko zer egin dezakeen aztertu asmo du. Bestalde, kea edo usain txarra sumatzen duten herritarrei kexuen berri eman eta gai honi buruzko informazioa Udalera bideratzeko deia zabaldu zen bilkuran.

Ibilbide luzea, konponbide bila

Hauxe kronologikoki, ekainaren 28an Atxegalden burutu zen bilkuran eman ziren azalpenen arabera, gai honek azken urteotan eman duena laburbilduta:

2004: herritarren lehen kexak usaina dela eta. Bizilagunak arazoak Ucin enpresako kearekin lotzen hasten dira.

2005: lehen harremanak, Udala eta Ucin enpresaren artean.

2006: Ucin-en lehen tramiteak, instalakuntzak legezatzeko.

2007: kexak areagotu ziren. Arazoari aurre egiteko, Udalak laguntza eskatzen du. Bilera, Udala, Ucin eta

Jaurlaritzaren artean. Ucin-ek labeko kanpaiarekin arazoak dituela onartzen du. Hobekuntza lanak egiten dituzte, baina filtroak erretzen zaizkie sute batean. Konponketak egin bitartean, filtrorik gabe isurtzen dute kea airera.

2008/4: Ingurumeneko Baimen Bateratua eskatzen dio Ucin enpresak Eusko Jaurlaritzari. Behin behinekoa jasotzen dute.

2008/8-2009/4: bost minbizi kasu agertzen dira, haurren artean. Kezka nabarmen areagotzen da. Aire kalitatea eta minbizi kasuon inguruko azterketak egiten dira.

2010: behin betiko Ingurumeneko Baimen Bateratua jasotzen du Ucin enpresak, auditoria bat pasa ostean.

2010/8: minbizi kasuei buruz Jaurlaritzak eginiko txostenaren emaitzak: ezohiko daturik ez. Aire kalitateari loturiko azterketan ere ezohiko emaitzarik ez.

2010/9: 704 sinadura biltzen dituzte herritarrek.

2011: 19 urtetik beherako beste gazte baten minbizi kasua.

2012: Jaurlaritzak bertan behera utzi du, Usurbili egiten ari zitzaion jarraipen berezia.

Energiaren Eguna ospatuko da asteburu honetan

Larunbat eta igande honetarako, Energiaren Eguna antolatuta du Usurbilgo Udalak. Helburua, "herritarrek energia aurrezpenaren inguruan eta energia-eragin-kortasunaren inguruan jabetu eta inplikatzeko da". Haur eta helduei zuzenduriko ekimen desberdinak burutuko dira, goizeko 11:00etan hasi eta arratsaldeko 20:00ak arte, Mikel Laboa eta Dema plazan inguruan.

Bi lekuotan, "karabana mugikor ibiltari bat antolatuko da", Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez. Informazio gunera jo, ibilgailu hibrido eta elektrikoaren erakusketa bisitatu edota bizikleta eta mini autoetan ibiltzeko aukera eskainiko dute. Hona hemen, Udaletik uztailaren 14 eta 15erako iragarri duten egitaraua:

- 11.00etan irekitzea.
- Karpa informatiboa.
- Zure produktu eraginkorra aukeratu.
- Ibilgailu hibrido eta elektrikoaren erakusketa.
- Desioen hodeiaren eskultura.
- Bizikleta eta miniautoen zirkuitua.
- Taldea osatuz gero, gidatze iraunkorrerako ikastaroa (aurrez izen emanda).
- 20.00etan ixtea.

Gidatze eraginkorreko ikastaroan izena eman behar da
Bestalde, Usurbilgo Udalak Energiaren Euskal Erakundearekin elkarlanean, gidatze eraginkorreko ikastaroa antolatu du datozen asteotarako. Klase teoriko eta praktikoez osatuko



HONEN ITXURAKO AUTO ELEKTRIKO BAT IKUSTEKO AUKERA IZANGO DA.

da. Interesdunek izena eman dezakete jada, udaletxera deituta (943 371951) edo energiarenegunak.com web orrian sartuta.

Astelehenean irekiko da Garbigune berria, Atallun

Datorren astelehenean, uztailak 16, Garbigune berria irekiko da Usurbilen.

Udalak prentsa ohar bidez jakinarazi duenez, Pikaolako itxi egingo da eta aurrerantzean Garbigune berria erabili beharko da: "orain arte Pikaolako garbigunea zegoen erabilgarri herritarrentzat. Pikaolako gunea itxi egingo da eta astelehenean aurrera Atalluko industriagunean kokatuko den Garbigunea erabili beharko dute herritarrek".



GARBIGUNE BERRIA.

Usurbiltzen-eko otarrak hartzeko izen-ematea ireki da

Garaiko barazki eta lekale ekologikoz betetako Usurbiltzen taldekoen otarrak jasotzeko aukera zabalik dago. Bilgunetik berri eman dutenez, "4 laguneko talde edo familiarrentzat adina janari goxo dago bertan". Interesdunek izena eman dezakete, pedroalberdi@hotmail.com helbidera idatzita, 660 061 251 telefono zenbakira deituta edota bilgunek hileroko lehen astelehenean, 18:30etan hasita Artzabalen burutzen duen batzar irekiera joanda. Lau lagunentzako otarren prezioa 15 eurokoa da. Baina badira bi lagunentzat otar txikiagoak ere, 8 eurotan.

Otarrak jasotzeko, Bake Epaitegiaren egoitza ondoan

Usurbiltzen Taldekoek otarrak jasotzeko hitzordu berria finkatu dute bestalde. Aurrerantzean, astearte arratsaldero 19:00-19:30 artean postua jarriko dute Bake Epaitegiko egoitzaren atzealdean. "Otarrak gain, arrautzak, haragia, laranjak... eta beste hainbat produktu jasotzeko aukera ere izango duzu", adierazi dute Usurbiltzen taldeak.



ASTEARTE ARRATSALDEZ BANATUKO DIRA OTARRAK.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

JE **JON ELORZA**
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Uztailaren 28an, Londresko Olinpiar Jokoetan izango da Oiana Blanco



ARGAZKIAREN ERDIAN KIYOSHI UEMATSU BIZKAITARRA ETA OIANA BLANCO, BASQUETEAM TALDEKO ARDURADUNEKIN BATERA.

Mundu mailako kirolari onenen artean lehiatuko da Oiana Blanco, uztailaren 28an. Bi aste barru, Londoneko Olinpiar Jokoetan izango da Usurbil Judo Klubeko kidea. 48 kiloz azpiko-en mailan parte hartuko du Blancok, beste 13 judokekin batera. Egun horretan jokatuko dira kanporaketa saioak eta baita finalak ere.

Olinpiar Jokoen sailkapenean hamai-kagarren posturaino heldu da Oiana. Basqueteam.com web orriak Blancok orain arte burutu duen ibilbidea jasotzen du. "Olinpiar Jokoetan azken denboraldietan sekulako goranzko bilakera izan eta gero. Bigarren izan zen Rotterdameko Europako Txapelketan 2009an, hirugarren Vienan 2010ean

eta bostgarren Istanbulen 2011n. Azken bi urteetan nahikoa puntu pilatu ditu nazioarteko txapelketetan Londreserako sailkapena lortu ahal izateko: 2011n bi urrezko domina eskuratu zituen World Cup-etan (Madril eta Viena), bigarren izan zen Quingdaoko Grand Prix-ean; aurten berriz Varsoviako World Cup-ean gailendu da eta Almatyko Masters-ean (Azerbaian) bostgarren amaitu zuen", gogorarazten du Basqueteam.com web orrialdeak.

Kirol jarduera honetako Euskal Herriko ordezkaritza, Blancorekin batera beste bi judokek osatuko dute; Kiyoshi Uematsu bizkaitarrak eta Sugoï Uriarte arabarrak. Orain arteko euskaldun gehien bilduko dira kirol jarduera honetan, Londonen ospatuko diren Olinpiar Jokoetan.

Gaztelekuko hitzorduak

Uda beteko ekintzetan murgilduak jarraitzen dute Gaztelekukoek. Hona hemen, datozen eguntarako antolatutako dituzten ekintzak:

Uztailak 12-13

Andatzara irteera ostegunean 18:00h. San Estebanen lo egin. Hurrengo egunean buelta, 14:00h.

Uztailak 19, osteguna

10:45-19:00 Donostiako irlara egun pasa. Nori zuzendua: DBH 1.

Uztailak 20, ostirala

11:00-19:00 Hernaniko igerilekura egun pasa (DBH 1).

Santixabelak

baloratzeko bilera

Santixabelak igarota, festen Singuruko balorazioa egiteko ordua heldu da. Horretarako, bilera deitu dute datorren astelehenerako, uztailaren 16rako, 19:00etan Potxoenean. Helburua, "ondo egindakoak mantendu eta hobetu beharrekoak bideratzea" da. Horretarako, Jai Batzordetik bi eskaera egin zaizkie, Santixabelak antolatzeaz arduratu diren herri eragileei; batetik, jaso duten festen inguruko ebaluazio-orria bete "eta ahal izanez gero, uztailaren 12rako helaraztea". Eta bestalde, bigarren ohar bat, bilera egunari begira; "egokia litzateke, egun horretarako, ahal balitz, diru-kontuak zurtzeko agiriari ekartzea".

**ALKORTA
AUTOZERBITZUA**

Baserriko haragia

•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak

Behoko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

Kima
MASAJE LEKUA

•KIROL MASAJEA •MASAJE TERAPEUTIKOA
•KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Agenda

Uztailak 12/13

Andatzara irteera ostegunean 18:00etan. San Estebanen lo egin. Hurrengo egunean buelta, 14:00etan. Antolatzailea: Gaztelekua.

Uztailak 14 larunbata

- Herri Batzarra Aginagako ludotekan, 18:30ean.
- Udako Antzerki Eguna.

Uztailak 16 astelehena

- Santixabel jaien inguruko balorazioa, 19:00etan Potxoenean.

Goardiako farmaziak

Uztailak 12, osteguna
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Uztailak 13, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 14, larunbata
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 15, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 16, astelehena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 17, asteartea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 18, asteazkena
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Uztailak 19, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 20, ostirala
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Uztailak 21, larunbata
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 22, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

*Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani
Telefono zenbakia: 943 552 087.
Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA
25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)

Larunbat honetan,
Udako Antzerki Eguna

Kale Antzerki Egun erraldoi baten orde, lau antzerki egun egitea erabaki dute aurten Txerrikiko kideek. Urtaro bakoitzeko bat. Udari dagokion ospakizuna larunbat honetan egingo da. Hau da prestatu duten egitaraua. Ikusteko ez ezik, ikaste-ko aukera ere badago, partehartzea sustatu nahi duen ekimen honetan.

9:30 "Usurbilgo Kaxkoan dugun natura" ezagutzeko irteera Sutegitik: Jakoba Errekondorekin Usurbilgo natur txoko batzuk ezagutu eta naturarengana-ko begirada landuko dugu. Doakoa. Iraupena: bi ordu eta laurden.

12:00 "Eguzkiaren bidaia" antzezlan-a Sutegin. Sarrera: 2 euro (Naturari buruzko marrazkia ekarrita sarrera doan).

15:30-17:30 Antzerki tailerra: Jakoba Errekondorekin egindako ibilbidean oinarritutako eszena laburrak bikoteka



GALDER PEREZEK ZUZENDUKO DU
ANTZERKI TAILERRA.

prestaturiko dira, Galder Perezen laguntzarekin. Potxoenea eta Sutegin. Matrikula: 5 euro. Plaza mugatuak. Izen emateko txerriki@gmail.com

17:30 "Naturbira antzeztua" ekintza ibiltaria. Irteera Sutegitik: trikitixarekin girotutako kalejiran, hainbat geldialdi egin eta antzerki eszena laburrak eskainiko dira. Doakoa.

Antolatzailea: Txerriki.

Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Uztailaren 14an,
herri batzarra Aginagan

Bidean Agiñatarron Herri Elkarteak herri batzarra antolatatu du, larunbat honetarako, uztailearen 14rako, 18:30etatik aurrera ludotekan. Eliza Zaharraren konponketa lanei buruz jardungo dute hitzorduan; noiz hasiko diren, zer eta nola izango diren... Sortzen diren beste gaiak ere ahotan hartu asmo dituzte.

Hasierako Lanbide
Prestakuntza Programak

Ostiral hau, uztailearen 13a izango da 2012-2013 ikasturterako Hasierako Lanbide Prestakuntza Programan matrikulatzeko azken eguna. Sukaldari-zerbitzari langile edo ile-apainketa laguntzaile gisa jarduteko prestakuntza eskainiko dute bertan. Informazio gehiago: 943 360 465 edo lhi.usurbil@gmail.com



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.com

Kaixo noauakide!
2012ko kuota kobraketa
dugula jakinarazi
bezala

2012ko

2012ko uztailearen 13an

Kaixo noauakide!
2012ko kuota kobraketa, uztailearen 16an hasiko
dugula jakinarazi nahi dizuegu. Kuota, pasa den urtean
bezala, 36€tako izango da. Beraz, 36€ kobratuko zaizue
datozen egunotan. Kutxa bidez kobraketa egiteko baimena
eman badiguzu, bide hori erabiliko dugu aurten ere.

Ordainketa eskuz egiten duzuenok gure kontu korrontean
sartu beharko duzue dirua edo gure egoitzara ekarri.
Hau da gure kontu korronteko zenbakia:

Gipuzkoa Donostia Kutxa: 2101 0069 15 0010543064

Besarkada bat eta hurrengo arte.

OHARRA: Azken urtean, zure datu pertsonaletan aldaketarik egon bada, guri ahalik eta lasterren jakinaraztea eskertuko genizuke. Aldi berean, edozein zalantza argitzeko guregana jo dezakezu.

Euskal Herrian
ihesi

Lurredeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarek bertara joateko egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria

**Euskal Herriko lehen
turismo webgune interaktiboa**

Herrialdeko informazio praktikua, mapak, bideoak, ARGIAko ihesi
sareko besteak, erabilgarriak gomendioak, zure proposamenak
egiteko lekua, zure laguntza 0,50 €-tik aurrera...

ihesi.com



argia
proiektua

Uda honetan Hurbilagorekin... gozatu

Usurbilgo
ostalaritzazi!

Uztaillean

2 lagumentzako 20
afari zozketatuko dira
Hurbilago txartelaren
erabiltzaileen artean



Uztaillean eta Abuztuaren

3 €ko 300 kontsumizio
bale zozketatuko dira
Hurbilago
txartelaren
erabiltzaileen
artean

